

Gaien hautaketa eta irizpideen kontrastea: emaitzen itzulketa

Trantsizio teknologikoa

AURKIBIDEA

1. Datu soziodemografikoak
2. Lankidetzazko gobernantzari buruzko aurretiazko ezagutza
3. Gaiak hautatzea eta justifikazioa
4. Irizpideak onartu eta kontrastatu


Datu soziodemografikoak.

Generoa eta jatorria.

Grafikoa: Parte-hartzaileen banaketa generoaren arabera (N = 10)




Grafikoa: parte-hartzaileen jatorria (N = 10)




Lankidetzazko gobernantzari buruzko aurretiazko ezagutza

"Zer neurritan entzun duzu elkarlaneko gobernantzari buruz hitz egiten?"



Gaiak hautatzea

"Aukeratu, mesedez, jarraian aurkezten diren gaietako bi"



Justifikazioa.

Parte-hartzaileek "teknologiaren kudeaketa publikoa" eta "teknologiak desberdintasunetan duen eragina" gaien aukeraketa justifikatu dute, hainbat arrazoi tarteko. Lehenik eta behin, aipatu dute ekitate digitala lan-eremu garrantzitsua dela beren erakundeetan, eta gai hauek modu batean ala bestean lotzen direla ekitate digitalarekin. Gainera, berrikuntzaren kudeaketak eta desberdintasunen murrizketak erakunde hauen misioaren zati gisa duten interesa nabarmendu dute.

"Ekitate Digitala lan egiten dutan erakundearen lan-arlo bat da, aipatu ditudan bi gaiak biltzen ditu"

(Gizona, erakunde sozialen eremua)

"Nire lan-esperientzia dela eta berrikuntzaren kudeaketa interesatzen zait. Desberdintasunak murriztea gure misioaren parte da".

(Gizona, administrazio publikoaren eremua)

Teknologiaren erabilera etikoaren eta desberdintasun-arrakalaren murrizketaren arteko lotura ere nabarmendu da. Aldi berean, honek teknologiaren kudeaketa publikoaren garrantzia azpimarratzen du. Parte-hartzaileen ustez, gai hauek pertsonen ongizate integralarekiko partaideek duten kezka islatzeaz batera, horiei aurre egiteko erakunde publikoek duten erantzukizuna aitortu dute.

“Bi gai horiek aukeratu ditut, nolabait beste biek in erlazionatuta daudelako. Teknologiaren erabilera etikoak desberdintasun-arrakala murrizteko helburua barne hartu beharko luke, eta, horretarako, funtsezkoa da teknologiaren kudeaketa publikoa”.

(Gizona, administrazio publikoaren eremua)

“Esparru horiek pertsonen ongizate integralarekiko funtsezko kezka jasotzen dute, eremu publikoak gai hauetan duen zeregina alde batera utzi gabe”.

(Gizona, unibertsitate-esparrua)

“(…) erantzukizun publikoa ezinbestekoa da esparru zientifiko-teknologikoa babesteko eta arautzeko”.

(Emakumea, administrazio publikoaren eremua)

Irizpideak onartu eta kontrastatu

Jarraian, ikerketa-taldeak proposatutako hasierako irizpideen zerrendari eremu bakoitzetik egin dizkiozuen ekarpenak azalduko dizkizuegu. Dinamikan zehar lan egiteko erabiliko dugun irizpideen behin betiko zerrenda erakutsi ostean, irizpide bakoitza zein neurritan eta zergatik integratu dugun ala ez argituko dizuegu.

Irizpideen behin betiko zerrenda, partaideen kontrastearen ostean

1. Galderak errenta, genero, hizkuntza, jatorri, etnia eta bestelako desberdintasunak kontutan hartzen ditu.
2. Galderak demokraziaren hobekuntzarekin zerikusia duten gaiak jasotzen ditu.
3. Galdera Gipuzkoako lurraldean aplikatu daiteke.
4. Gipuzkoako Foru Aldundiak eskumenak ditu galdera honek jorratzen duen gaian.
5. Administrazio publikoek premiaz landu beharreko gaiak jasotzen ditu galderak.

6. Oro har, galderaren formulazioa pertinentea eta egokia dela iruditzen zait (adb., argia da eta ez du anbiguotasunik onartzen, ez du "bai" edo "ez" motako erantzun sinplerik onartzen, azpi-galderak planteatzeko aukera ematen du, etab.)

Trantsizio teknologikoari buruzko galdetegietan jasotako ekarpenak

- *"Ez dut ulertzen zergatik dagoen irizpide bat "demokrazia ordezkatzailerik" hobetzera bideratuta, eta ez soilik "demokrazia" hobetzera. Benetako demokrazia ezin dela ordezkatzailerik izan defendatzen duen horietakoa naiz."*

Proposamena onartzen dugu, eta "ordezkatzailerik" ezabatu dugu. Iruzkina **2. irizpidearekin** lotuta dago, hasiera batean honela formulatua zegoena: "Galderak demokrazia ordezkatzailerikaren hobekuntzarekin lotutako gaiak jasotzen ditu." "Demokrazia" ez da hain murrizta, eta hurbilpen desberdinak onartzen ditu.

- *“Ez zait askorik bururatzen, agian galderen bidez saiatzea sakoneko iritzietara iristen? (ez azalean edota diskurtso publikora mugatzen), edota norberaren inplikazioa bilatzea?”*

Proposamena onartzen dugu. Ondorioz, beste irizpide bat gehitu dugu, **6. irizpidea**, galderaren formulazio egoki eta pertinenteari buruzkoa.

Trantsizio ekologikoari buruzko galdetegietan jasotako ekarpenak

- *“Galderak garapen kulturalarekin eta ekonomikoarekin lotutako gaiak jasotzen ditu.”*

Ez dugu proposamen hau sartu. Proiektua 2030 Agendan oinarrituta dagoen heinean, kultura- eta ekonomia-garapena zeharkako gaiak dira.

- *“Galderek koherentzia izan behar dute elkarren artean. Edo modu koherentean antolatuak izatea. Alde horretatik, adibidez, aurre egin behar diogun arazoa zein den jakiteko galdera erantzun beharko genuke, zuzenean nola galderara*

joan baino lehen. Edo adostu beharko litzateke enpresa handiek duten edo ez duten papera, enpresei zer dirulaguntza edo laguntza eman galdetu aurretik.”

Proposamena onartzen dugu. Ondorioz, beste irizpide bat gehitu dugu, **6. irizpidea**, galderaren formulazio egoki eta pertinenteari buruzkoa.

- *“Galderak askatasun indibidualekin lotutako gaiak jasotzen ditu.”*

Ez dugu proposamena dinamika honetan jasoko, baina ideia proiektuaren hurrengo faseetan landuko dugu. Hurrengo fase hauek galderetatik abiatuta erantzunak eta proposamenak lantzerantz bideratuta daude. Informazio gehiagorako kontsultatu Gi2030 plataforma: <https://gi2030.eus/processes/gi2030/steps?locale=eu>

- *“Galdera irekiak izatea (ezin izatea baiezko edo ezezko batekin erantzun)”*

Proposamena onartzen dugu. Ondorioz, beste irizpide bat gehitu dugu, **6. irizpidea**, galderaren formulazio egoki eta pertinenteari buruzkoa.

- *“Erantzuteko, ikuspegi sistemiko bat kontutan hartu behar izatea (azpigoaldarak sortzeko aukera ematen duena).”*

Proposamena onartzen dugu. Ondorioz, beste irizpide bat gehitu dugu, **6. irizpidea**, galderaren formulazio egoki eta pertinenteari buruzkoa.

- *“Anbigotasuna ekiditea edo orokorregia izatea.”*

Proposamena onartzen dugu. Ondorioz, beste irizpide bat gehitu dugu, **6. irizpidea**, galderaren formulazio egoki eta pertinenteari buruzkoa.

- *“Galdera administrazio publikoek landu beharreko premiazko gai bati erantzun diezaiokete.”*

Proposamena onartzen dugu, eta irizpide berri bat gehitzen dugu, **5. irizpidea**, ideia bera zuzenean jasotzen duena.

- *“Ahal den neurrian ekintzara bideratuta egotea.”*

Proposamena onartzen dugu. 5. irizpidea, galderak jorratzen duen gaiaren urgentziari buruzkoa, aurreko iruzkinetik abiatuta gehitua, proposamen hau ere barne hartzen du. **3. irizpidea**, galderak Gipuzkoako lurraldean aplikatzeko dituen aukerei buruzkoa, ekintzarako joera ere jasotzen du, zeharka bada ere.

- *“Galderak komunagarriak diren ondasunen analisia kontutan hartzeko beharra azpimarratzen duten faktoreak jasotzen ditu”*

Proposamena partzialki sartu dugu. 2. irizpidean demokraziaren kontzeptua zabaldu dugu, eta demokraziari buruzko hainbat hurbilketa bermatzeko. Beraz, demokrazia komunala demokrazia hobetzeari buruzko irizpidean geratuko litzateke jasota.

- *“Ondo iruditzen zait, baina, agian, hobeto zehaztu behar dira hizpide ditugun desberdintasun sozialak (errentan, generoan, hizkuntza-aukeran... oinarritutakoak).”*

Proposamena onartzen dugu. Iruzkina **1. irizpideari** buruzkoa da, hasieran, modu honetara formulatu genuena: “Galderak gizarte-desberdintasunekin lotutako gaiak jasotzen ditu.” Galderaren formulazioa findu dugu, desberdintasun-ardatzak gehituz, irizpideari zehaztasun handiagoa emate aldera.

Trantsizio sozialari buruzko galdetegietan jasotako ekarpenak

Trantsizio sozialaren baitan egindako galdetegiek ez dute irizpideekin lotutako inolako ekarpenik jaso.